

BERRIAK ETA GAI LABURRAK

GURE ILLAK

Jules Moulier "Oxobi"

Oxobi izenarekin ezagutua den Euskaltzain jauna il zaigu. Oso izen aundikoa dugu apez au bere bertso, izkribu eta itzaldiakatik. Goian bego Euskaltzain jakintsua izan dena.

EUSKALTZAINDIAK IPINTEN DUEN URTEROKO NOVELA TA TEATRO-SARIA

Domingo Agirre Novela-Saria

- a) Edozein euskalkitan idatzi ditezke lanak.
- b) Gaia idazleak berak aukeratu dezake, eta lanak nor berak egiña izan bear du eta ez beste izkuntza batetik itzulia.
- d) Sari bakar bat baizik ezta izango, amar milla pesetakoa eta zaitu ezia.
- e) Lanak Euskaltzaindira bialdu bear dira (Ribera, 6. BILBAO) lema batekin firmatuta, eta lemaren giltza sobre itxi batean bialdu bear da abenduko leenbiziko eguna baiño leen.
- f) Saria, gabe gelditu diteke egoki iruditzen bazaie batzarrekoeri.
- g) Batzarrea Euskaltzaindiak izendatuko du lanak bialtzeko epea bukatu ondoan.
- h) Izkribuak makiñaz idatzita bialdu bear dira, alde bakar batetik eta lerro-une bat utzirik, folio tamañuzko orrian (31,50 x 22 gutxi gora beera) gutxienez 150 folio dituala.
- i) Novela saritua Euskaltzaindi onen ardurapean agertzen den "Len eta Orain" liburu-sortan argitaratuko da.

Euskaltzaindiaren gogoia da sari bitara deitzea: novelazko Domingo Agirre sarira ta teatrozko Toribio Alzaga sarira. Ala ta guzi ere aurtan novelazkora baizik ezta deitzen, eta datorren urtean teatrozkora. Onek